

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KULTURA, HEZKUNTZA ETA KIROL SAILA

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko maiatzaren 17an hartutako erabakiaren laburpena: 2019ko Andre Mari Zuriaren jaietan parte hartzen duten blusa eta neska taldeei diru-laguntzak emateko deialdia

BDNS (Identif.): 458051

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean kontsulta daiteke.

Lehen. Onuradunak

Gutxienez 5 blusa eta neska talde ordezkaten dituzten pertsona juridikoak izan ahalko dira araudi honetan araututako diru-laguntzen onuradun, aurrez hala eskatzen badute, eta baldin eta elkarte gisa legez eratuta eta dagokien Erregistro Ofizialean erregistratuta badaude eskabideak aurkezteko epea amaitzean, eta egoitza Gasteizko udalerrian badute.

Ezingo dute onuradun izaera eskuratu beren barruan gizon eta emakumeen presentzia eta parte-hartzea berdintasun-egoeran gauzatea galarazten duten elkarteek, salbu eta emakumeek bakarrik osatutako taldeak izanik, erabakiak hartzeko partaidetza-esparruetan ordezkari-tza txiki-egia izateagatik emakumeek jasaten duten ezberdintasun-egoera zuzentzeko helburua badute.

Bigarrena. Helburua

2019ko Andre Maria Zuriaren jaietan blusa eta neska taldeen parte hartzea bultzatzeko asmoz Gasteizko Udalak bere aurrekontuko kredituen kontura diru-laguntzak emateko deialdia eta arauak jasotzen dira oinarri hauetan.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko maiatzaren 17an onartu zituen, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

87.000,00 eurokoa da deialdiaren zuzkidura.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Hamabost egun natural, laburpen hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokituz gero, hurrengo lehen egun baliodunera arte luzatuko da epea.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko maiatzaren 17an

Kultura, Hezkuntza eta Kirol zinegotzi ordezkaria
ESTÍBALIZ CANTO LLORENTE